

MEMORIA

NAFARROAKO
GIZAKIA
HELBURU



PROYECTO
HOMBRE
NAVARRA



2017

Aurkibidea

Edukien aurkibidea

1

Agurra

1. Or

2

Nafarroako Gizakia
Helburu Fundazioa

2. Or

3

Tratamendu programak
eta zerbitzuak

5. Or

4

SUSPERTU
Nerabeei eta haien familiei
laguntzeko programa

12. Or

5

Tuterako eta Erriberako
Artatze-Zentroa

15. Or

6

Enprekin Lankidetzan
Aritzeko Zerbitua

17. Or

7

Ikerkuntza, hezkuntza
eta prestakuntza

19. Or

8

Datu ekonomikoak eta
diru-laguntzak

23. Or

9

Fitxa teknikoa

25. Or

Iñakiren agurra

Agurra 1

Agurra eta aurkezpena



Urtero bezala, sortu ginetik, azken ekitaldian egindako jardueraren berri eman nahi diogu gizarteari. Aurten ere, urtemuga garrantzitsuen urtea izan da, hala nola SUSPERTU nerabeen programaren hogeigarren urteurrena eta Tuteran gure zerbitzuak martxan jarri izanaren hamargarren urteurrena; izan ere, han aritzen dira gure lankideak Tuteran eta Erriberan Mendekotasunak Artatzeko Fundazioan.

Urte asko joan dira nerabe nafar askoren gurasoak gure atea jotzen hasi zirenetik laguntza eske, uste baitzuten beharbada (edo bazekiten seguru) beren seme-alabak lehenbiziko kontaktuak izaten ari zirela drogekin. Une hartan ez genuen erantzun egoki bat haiei emateko eta hala hasi ginen hausnartzen nerabeentzako eta haien gurasoentzako programa espezifiko bat sortzeko aukerari buruz. Gaur egun eta hogei urtez 1.300 nerabe eta 1.500 familia baino gehiago artatu eta gero, esaten ahal dugu SUSPERTU erreferentzia bihurtu dela eremu

horren prebentzioan estatu osoan. Urte horietan guztietan programan lan egin duten pertsonen ahaleginari esker eta beren zorrotasun profesionalari esker lortu da hori guztia.

2017. urtea tratamendueredu trinkoago baten sendotze urtea ere izan da, hain zuzen, ALDATU zentro ambulatorioan egiten den ereduarena; horri esker, gure KOMUNITATE TERAPEUTIKOAre-

kin batera, bi baliabide eskaintzen ahal ditugu pertsona bakoitzari egokitutako tratamendua diseinatzeko.

Joan den urte hori ere garrantzitsua izan da kudeaketaren arloan, "Zilarrezko Kudeaketa Aurreratua" aitortpena eman baitiote gure kudeaketa-sistemari, Kudeaketa Aurreratuaren eredu berriarekin bat etorritz.

Orain, beste urte bati aurre egiteko prest gaudete, non desafio berriak izanen baititugu; besteak beste, Nafarroako Gobernuarekiko harreman berrirako oinarriak ezarriko ditugu, Gizarte Hitzarmenaren Foru Lege berritik abiatuta, sektorean egun bizi den ziurgabetasuna gainditzeko, eta indarrez agertu diren joko patologikoaren forma berriei erantzuten saiatuko gara.

Espero dugu gure memoria interesgarri suertatzea.

2 Nafarroako

Gizakia Helburu Fundazioa

IZAERA

NAFARROAKO
GIZAKIA
HELBURU



PROYECTO
HOMBRE
NAVARRA

Gizakia Helburu Fundazioa 1990ean sortu zen heinaren krisiak eta horren ondorioak nabarmen baldintzatutako testuinguruan eta Nafarroan drogetikiko menpekotasunak kaltetutako pertsonak tratatzearen.

Estatu mailako Gizaki Helburu Elkartearen partaideak gara, beste 26 erakunde sustatzailerekin batera beste probintzia eta autonomia-erkidego batzuetan.

* EGITEKOA

Nafarroako Gizarte Helburu Fundazioak honako xede hauek ditu: mendekotasunak eta harekin lotutako ondorioek sortzen dituzten arazoaren inguruko prebentzioa, gizarte-sentsibilizazioa, tratamendu integrala eta ikerketa.

* BALIOAK

- Elkartasuna
- Lankidetzatza
- Profesionaltasuna
- Parte-hartzea
- Optimismo Terapeutikoa
- Gardentasuna



PATRONATUA

Gure Komunitatean beren arloan ospetsuak diren 8 lagun partikularrek osatzen dute. Lagun horiek ere boluntarioak dira, gure estatutuek ezarritakoari jarraituz ("Patronoaren kargua erabat doakoa izango da". NGHFaren Estatutuetako 10. art.).

PATRONATUKO KIDEAK

Presidentea

José María Jiménez Nespereira Jn.

Merkataritza Irakaslea. Kontu-ikuskari eta zerga-aholkulari ohia

Idazkaria

Alfonso García Liberal Jn.

Nafarroako Laboral Kutxako Lurralde-zuzendari ohia

Kideak

José María Aracama Yoldi Jn.

Cementos Portland Valderrivaseko
Presidenteordea

Jose Antonio Arrieta Garnica Jn.

Arpa Abogados y Consultores, S.M.-ko
Presidentea

María Paz Benito Osés And.

Iruñeko 3. Instrukzio Epaitegiko Magistratu
titularra

Iruñeko Epaile Dekanoa

Jose Miguel Del Amo Villarias Jn.

Aragoiko, Nafarroako eta Euskadiko Ingeniari
Agronomoen Elkargoko ordezkaria

Jose Javier López Goñi Jn.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Psikologia
Departamentuko Irakasle Titularra

Amelia Salanueva Murguialday And.

Abokatua

Programen Zuzendaritza

Alfonso Arana Marquina Jn.

Gizarte Hezitzailea

LANTALDEA

NGHFan, arlo soziosanitarioko hainbat diziplinatako 42 langile aritzen dira, eta honako hauekin lotutako lanak egiten dituzte: artatze psikoterapeutikoa, artatze medikoa, hezkuntza-artatzea, gizarte-artatzea eta erakundearen kudeaketa. Haien eginkizunak 70 boluntarioen lanarekin osatzen dira; horiek modu altruistan ematen dituzte beren zerbitzuak, zeregin osagarri askotan (telefonoan, intendentzian...) eta erabiltzaileen oinarrizko beharrak asetzeko eginkizun askotan (ikus 3. kapitulua).

LANGILEAK

Alberto,
Alejandra, Alicia,
Álvaro, Amaia, Amalia,
Amparo, Ángel, Aroha, Asun,
Belén, Bernardo, Camila, Carlos,
Carmen, Conchi, Enrique, Feli, Fermín,
Fernando, Fina, Gloria, Inma, Iñaki, Ion,
Itziar, Jaione, Javier, Jesús Mari, Jordi, José
Luis, José María, Jose, Juan, Juan Carlos,
Juan Manuel, Laura, Luis, Marijose, Magaly,
Maika, Maitane, Maite, Manolo, Margarita,
Marian, Mentxu, Miguel, Mikel, Natalia,
Pablo, Paketxu, Patricia, Perico, Pibe,
Pilar, Rosy, Saioa, Santi, Sergio,
Soko, Sole, Tere, Vicky,
Víctor.

Adriana,
Aitziber, Alfonso,
Amaia, Ana, Belén,
Clara, Cristina, Dani, Elena,
Federica, Fernando, Garbiñe,
Garikoitz, Gorka, Isabel, Itziar,
Jacqueline, Javier, Jenny, Josune,
Karmele, Leire, Lucía, Maitane,
Maite, Manuel, Marijose, María,
Marisa, Mikel, Miriam, Montse,
Nahia, Olga, Pepa, Raquel,
Sara, Sonia, Joseba.

BOLUNTARIOAK

GARBIÑEREN AGURRA

Nafarroako Gizakia Helburun 20 urte luzez mediku aritu eta gero, Garbiñe Caminos gure adiskide maiteak utzi egin gaitu ongi merezitako erretiroa hartzeko.

Eskerrik asko, Garbiñe, zure ardurarengatik, zure profesionaltasunarengatik eta zure alaitasunarengatik. Besarkada handi bat eta goza ezazu bizimodu berriaz.




Garbiñe Caminos

Programak 3

Tratamendu programak eta zerbitzuak



Arreta emateko eskaera berria



1. FIGURA Zerbitzuak eta programak

3.1. TRATAMENDU BAT BI BALIBIDE

Mendekotasunak artatzeko bi baliabide mota ditugu:

* **GIZAKIA HELBURUK** Lizarran duen **KOMUNITATE TERAPEUTIKOA** egokia da beren egoera sozial eta pertsonalarengatik edo bere mendekotasunaren ezaugarriengatik ohiko ingurua utzi eta egoitza-tratamendu bat, laburra nahiz luzea, egin behar duten lagunentzat. 48 pertsonentzako plazak ditu; horietako 38 Nafarroako gobernuko Osasun Departamentuarekin hitzartuta daude.

Gizakia Helbururen Komunitate Terapeutikoaren programak hasierako fase bat du, anbulatorioa, iraupen finkorik gabea, baina kasu gehienetan hilabete baino gutxiagokoa. Honako hauek dira fase horri dagozkion helburuak: funtzionamendua ezagutu, egoitzan sartzeko gutxieneko egonkortasun fisiko eta pertsonala lortu eta horretarako beharrezkoak diren tramiteak burutu.

JARDUERA ADIERAZLEAK	2013	2014	2015	2016	2017
Programan egindako artatzeak, guztira	146	146	160	151	150
Egoitzara sartu gabe artatutako pertsonak	36	41	43	49	44
KTan egindako artatzeak, guztira	110	105	117	102	106
KTko pertsona-kopurua urtarrilaren 1ean	43	41	45	44	37
KTerako sartutako lagunak	67	72	72	64	74
Egoitzara sartu direnen kopurua	43	42	48	44	45
Egoitzara berriz sartu direnen kopurua	24	30	24	20	19
KT-tik atera direnen kopurua	60	69	73	71	70
Prozesuan alta hartu dutenen kopurua	32	38	33	33	33
Bideratze-kopurua	6	4	5	6	5
Kanporatze-kopurua	4	8	8	7	10
Borondatez hartutako alten kopurua	16	18	26	21	21
Bestelakoak	2	1	1	3	1
KTko erabiltzaile kopurua abenduaren 1ean	41	44	44	38	41

1. TAULA K. Terapeutikoaren 2017ko jarduera-adierazleak

INDICADORES	2013	2014	2015	2016	2017
Artatze-kopurua, guztira	241	239	235	235	254
Erabiltzaile-kopurua urtarrilaren 1ean	100	115	115	110	115
Sarrerak	141	124	120	125	139
Egoitzara sartu direnen kopurua	103	96	84	93	93
Egoitzara berriz sartu direnen kopurua	38	28	36	32	46
Irteerak	126	124	127	107	135
Alta terapeutikoen kopurua	44	47	47	56	53
Osasun Zerbitzuetara egindako bideratze-k.	8	6	9	2	1
Nafarroako GHren KTra egindako bideratze-kopurua	8	8	17	10	13
Tratamenduari egindako ukoen kopurua	12	14	12	3	13
Borondatez hartutako alten kopurua	50	45	39	28	48
Bestelakoak (espetxera sartzeari, hildakoak)	4	4	3	8	7
Erabiltzaile-kopurua abenduaren 1ean	115	115	109	128	119

2. TAULA Aldaturen 2017ko jarduera-adierazleak

* ALDATU Zentro Anbulatorioa Iruñean dago eta, han, pertsonak beren tratamendua (osoa edo zati bat) bateratzen ahal dute beren eguneroko jarduerarekin, banakako elkarrizketak eginez eta taldetan parte hartuz. 120 pertsonentzako plazak ditu; horietako 24 Nafarroako gobernuko Osasun Departamentuarekin hitzartuta daude.

Bi baliabideak izateak aukera ematen digu tratamendu pertsonalizatuak ezartzeko, eta prozesuaren une bakoitzean, bat edo beste

erabiliko dugu artatutako pertsona bakoitzaren beharren arabera.

Tratamendua baliabide batean edo bestean abiaraztea ukitutako pertsonarekin eta haren familiakide eta hurbilekoekin adostuta ezartzen da **HARRERARAKO ETA HASIERAKO DIAGNOSTIKORAKO ZERBITZUAN** eta, baita, izanez gero, Nafarroako gizarte- eta osasun-baliabideekin elkarlanean.

HARRERARAKO ETA HASIERAKO DIAGNOSTIKORAKO ZERBITZUAN	
ARTATUTAKO KASUAK	272
EGOITZAN IZANDAKO SARRERA BERRIAK	138
3. TAULA Harrerarako eta Hasierako Diagnostikorako Zerbitzuaren 2017ko jarduera-adierazleak	

3.2. TRATAMENDUA SENDOTZEKO ZERBITZUAK

Harrerarako eta Hasierako Diagnostikorako Zerbitzuaz gain, Familia-laguntzarako Zerbitzua ere badugu:

Familia-laguntzarako Zerbitzua

Gizakia Helburun familiarekin eta hurbilekoekin egindako lanak berebiziko garrantzia du eta prozesu osoan zehar bakarka zein taldekako jarduerak egiten dira. Gainera, ukitutako familiakidea tratamendura hurbildu

ezin izan duten familiak eta hurbilekoak ere zaintzen ditu zerbitzuak; babesa eta preskakuntza ematen die hori lortzeko eta etxean drogekiko arazo horri aurre egiten laguntzeko.

FAMILIA-LAGUNTZARAKO ZERBITZUA	
Artatutako pertsonak, GUZTIRA	428
K. Terapeutikoan dauden lagunen hurbileko pertsona artatuak	417
Tratamenduan dagoen erabiltzailerik ez duten familiak	11
Egindako familia-taldeak	210
Talde psikohezitzaileak	114
Familia-topaketak	59
Familia- eta bikote-anamnesia	37
4. TAULA Familia Zerbitzuaren 2017ko jarduera-adierazleak	

Iruñeko Espetxean esku hartzeko Zerbitzua

Banakako arreta ematen zaie espetxean dau-

den pertsoneri, banakako elkarrizketen bidez, NGHFAren tratamenduetan sartzea sustatzeko eta errazteko, zigorra espetxean betetzearen alternatiba gisa, legalki posible izanez gero.

IRUÑEKO ESPETXEAN ESKU HARTZEKO ZERBITZUA

Iruñeko Espetxera egindako Bisitaldiak	28
Artatutako pertsonak	30
Egindako elkarrizketak	202
Komunitate Terapeutikoan sartu diren pertsonak	4

5. TAULA Espetxearen 2017ko jarduera-adierazleak

Gizartean eta lan-munduan sartzeko Zerbitzua

Tratamenduan daude langabetuak lan-munduan sartzea erraztea du helburu, baita enplegu ez-egonkorra dutenen enplegua hobetzea ere. Horregatik, lau ekintza mota eskaintzen ditu:

- * Diagnostikorako eta Gaitasun Ebaluaziorako Ekintzak.
- * Lan-orientazioa emateko eta lana bilatzen laguntzeko Ekintzak.
- * Lanean hasi aurreko gaitze-ekintzak.
- * Enpresen azterketa eta haiekiko bitartekaritza egiteko Ekintzak.

Bi programatan biltzen dira ekintza horiek:

ISOLA Proiektua (Mendekotasun-arazoak dituzten pertsonak Gizartean eta lan-munduan sartzeko Proiektua), Europar Gizarte Funtsak finantzatua eta Gizakia Helburu Elkartearen zentro guztietan garatua.

8

POISES Programa (Gizarte Inklusioko eta Gizarte Ekonomiako Programa Operatiboa), Nafarroako Lan Zerbitzua – Nafar Lansarek egindako deialditik abiatua.

2017an, honako hauek izan dira jarduera nagusiak:

- * 100 erabiltzailetatik, 91 ebaluazioa soziolaboral egin dira (%91) eta 80 ibilbide pertsonalizatu (%80).
- * 215 elkarrizketa programatu dira, eta horietatik %90 joan dira elkarrizketetara.
- * Artatutako pertsonen %91k lana aktiboki bilatzeko gunearen zerbitzua erabili du lan-eskaintzak bilatu eta horietan izena emateko, zenbait enplegu-ataritan, baita curriculumak idazteko eta lan-munduari buruzko informazioa lortzeko ere. Zerbitzuan parte hartu duten lagunen %76,26k asebetegarritzat jo dute.
- * Hiru gaitze-lantegi egin dira:
 - Gizarte-gaitasunen lantegi bat: 40 saio egin dira eta, guztira, 60 prestakuntza-ordu, eta 24 lagunek hartu dute parte.
 - Estresa kudeatzeko lantegia: 5 saio egin dira, 10 orduz, eta 9 lagunek hartu dute parte.

Boluntariotza Zerbitzua

NGHFaren Boluntariotza Planak honako helburu hau biltzen du, besteak beste, bere jarduera eta zerbitzuetarako: tratamenduan dauden pertsonen oinarritzko beharrei erantzuten laguntzea, batez ere baldin eta familia-laguntzarik ez badute. Horregatik, boluntarioek zenbait laguntza-zerbitzu ematen dituzte:

- * Familia-laguntzarik ez duten pertsoneri espetxean eta ospitalean lagun egitea.
- * Komunitate Terapeutikoko Harrerarako eta Hasierako Diagnostikorako fasean lagun egitea.
- * Gestioak egiteko Komunitate Terapeutikotik egindako irteeratan laguntzea (medikua, tramite administratiboak etab...).

- * Aisialdiko eta astialdiko ekintzak antolatzeta.
- * Helduentzako heziketarako laguntza.
- * Beste zerbitzu batzuk.

Horrez gain, boluntarioek beste funtzio askotan laguntzen dute, hala nola Susper-tu programan artatutako gazteen eskola-laguntzan edo profesionalak ekarpen gisa egindako lan espezializatu askotan (itzulpenak, dokumentuak digitalizatzea, komunikazioa, eta abar).

2017an, Europar Boluntariotza Zerbitzuan parte hartzen hasi gara; Europar Batasuneko ekimen horrek gazteen boluntariotza sustatu nahi du eta, 2018an, gure inguruko herrialde batetik etorritako boluntario bat hartzeko asmoa dugu.

3.3. ARTATUTAKO PERTSONEN EZAUGARRIAK

Ondotik, 2017an tratamenduetan izandako onarpenei dagozkien datuak aurkeztuko ditugu, Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioak kudeatutako bi bitartekoak aintzat hartuta.


Eskaera sortzen duen substantzia nagusia

Alkoholak jarraitzen du erabiltzaileek eskaera-arrazoitzat aurkeztutako substantzia nagusia izaten, eta, ondotik, kokaina, anfetaminak eta kanabisa ditugu. Hala ere, alde oso esanahitsuak izaten dira generoen arabera. Gizonen artean, estimulatzaileek (kokaina eta anfetaminak) osatzen dute eskaera-kopururik handiena; emakumeen artean, berriz, tratamenduan onartzen diren eskaeren hiru laurdenak alkoholarengatik dira.


Substantziarik gabeko mendekotasunak: joko patologikoa

Gure programetan artatutako pertsonen %42,1ek joko-arazoaren ezaugarri klinikoak zituen eta %19,5ek joko-patologikoaren ezaugarriak. Emaitza horiek bat egiten dute gai horren inguruan argitaratutako ikerketekin, eta azpimarratzen dute beharrezkoa dela mendekotasunen tratamenduetan jokoaren arazoari heltzeko osagarri bat sartzea.


Gainera, joko-forma patologiko berriekin lotutako arretra-eskaera gorakorra dela eta (online jokoarekin eta kirol-apustuekin lotutakoak), tratamendu berri bat jarri dugu abian eta hurrengo urtean behin betiko bultzatu nahi genuke.




1. GRAFIKOA Eskara sortzen duen substantzia nagusia, generoen arabera




3. GRAFIKOA Sexuen araberako banaketa




4. GRAFIKOA Egoera zibila



2. GRAFIKOA Eskara sortzen duen substantzia nagusia, programen arabera



5. GRAFIKOA Lan-egoera



2. FIGURA Batez besteko adina

4 Suspertu

Nerabeei eta haien familiei laguntzeko programa



SUSPERTU Nafarroako Gizakia Hebururen erantzuna da gazteen artean prebentzio eraginkor bat lortzeko. Lan trinkoa proposaten du jada arrisku-jokabideak dituzten gazteekin aritzeko, haien familiekin eta gertukoekin, baita zenbait baliabideren bidez gazte horiek artatzen dituzten pertsonekin ere, prebentzio papera betetzen lagunduz.

SUSPERTUK Arreta Zuzeneko Programa bat eskaintzen die nerabeei eta haien familiei. Eta, halaber, prebentzio zerbitzua ere bada, hala eskatzen dutenei laguntza, hezkuntza

eta aholkularitza emateko.

SUSPERTU Arreta Zuzeneko Programak arreta trinkoa ematen die nerabeei nahiz haien familiei (normalean gurasoak izaten dira). Prozesuan zehar, elkarren artean koordinatuta dauden profesional independenteek artatzen dituzte. Halaber, gurasoekin bakarrik lan egiteko aukera ematen dugu, baldin eta beren seme-alabak programara ekartzea lortzen ez badute.



Nerabeen arrisku-joeren prebentziorako III. Jardunaldia. Argazkia: J.J. Cobos

20 URTE

Aurten, hogei urte bete dira SUSPERTUK bere ateak ireki zituenetik, eta, hori dela-eta, egindakoaren azterketa egin nahi izan dugu eta zenbait ekitaldi prestatu, hala nola: informazio-gosari bat hedabideekin, eta Nerabezeroan Arrisku Jokabideak Prebenitzeko III. Jardunaldia ("Nerabezeroa eta drogak: ebidentzian oinarritutako prebentzioa"), Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin lankidetzan eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren eta Iruñeko Udalaren laguntzarekin.

2017	NERABEAK	FAMILIAK
Pertsona-kopurua urtarrilaren 1ean	33	31
Artatze berriak	75	116
Programan sartu direnak	71	71
Programatik atera direnak	75	66
Altak	29	37
Programa bukatu dutenak	16	15
Borondatez hartutako alden kopurua	13	6
Bideratze-kopurua	7	6
Baldintzak ez betetzea	7	2
Bestelakoak	3	0
Artatutako pertsonak, guztira	108	147
Programan sartuta daudenak, guztira	104	102
Pertsona-kopurua urtarrilaren 1ean	29	36

6. TAULA Arreta Zuzeneko Programa - 2017ko Jarduera

Guraso-eskolak

Gurasoek beren seme-alaba nerabeak hez-

teko duten gaitasuna indartu nahi du guraso-eskolak, eta, bereziki, arrisku-jokaerei aurre egiteko gaitasuna. 2017an, bi edizio

	HASIERA DATA	BUKAERA DATA	PARTE HARTU DUTEN FAMILIAK
39. TALDEA	19/09/2016	2017/03/20	30
40. TALDEA	28/02/2017	2017/06/20	24
41. TALDEA	02/10/2017	Irekia	20

7. TAULA Guraso-eskolak

Emandako prebentzio-lantegiak	42
Parte hartu duten nerabeak	1.150
Parte hartu duten bitartekariak	117

8. TAULA Kanpoan egindako prebentzio-jarduerak

IKASKETAK	%
Diplomatura	38,74
LH1	41,68
LH2	39,15
Ikasketa-graduatuak	30,50
Lizentziatura	16,90
Oinarrizko ikasketak	5,90

9. TAULA Gurasoen ikasketa-maila

	KOP	%
Drogen kontsumoa	56	78,9
Familia-gatazka	16	22,5
Eskola-porrota	6	8,5
Bide judiziala	3	4,2
Bestelakoak:	16	22,5
Oldarkortasuna-indarkeria	5	
Autoestimua eskasa/Gogo-aldarte eskasa	5	
Lagunak	1	
Eskolara huts egitea - ikasketak	3	
Gainerakoak (apustuak, mugikorren)	2	

10. TAULA Prog. etortz. esk/arraz. nag.

Artatutako nerabeen ezaugarriak

Batez besteko adina

Batez besteko adina: 16,61 urte (16,53 urte, mutilak eta 17,13 urte, neskek)

Generoa

Lehen aldiz sartzen direnen %87 mutilak dira eta %13 neskek

Okupazioa

%81,7 ikasten ari da; %2,8 lanean ari da; %5,6k ez du okupaziorik.

Artatutako familien ezaugarriak

Batez besteko adina

49,17 urte (50,56 urte, gizonezkoak eta 48,03 urte, emakumezkoak)

Generoa

%56 emakumezkoak, %44 gizonezkoak.

Tutera 5

Tuterako eta Erriberako Artatze-Zentroa




Tutera eta Erriberan Mendekotasunak Artatze-ko Fundazioak (FAATR) honako zerbitzu hauek eskaintzen ditu: Harrerarako eta Hasierako Diagnostikorako Zerbitzua, Komunitate Terapeutikoan Sartzen Prestatzeko eta erabiltzailea baliabide hori erabiltzen ari den bitartean Familiari Jarraipena egiteko zerbitzua, Helduentzako Programa Anbulatorio Trinkoa eta Gazte Programa. Zerbitzu horiek guztiak Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioaren programa eta zerbitzu guztiekin koordinatuta ematen dira.

Pertsonaren batek egoitza batean egonaldia egitea beharrezkoa badu, Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioko Komunitate Terapeutikora bideratuko da.



Artatze-Eskaera



3. FIGURA FAATRek eskaintako zerbitzuen egitura.



"Alberto Pérez Pastor-en agurra (gure Perico maitea), lehenbiziko hamar urtean Fundazioaren Presidentea izandakoa" . Foto: Tomas Watorski-ren argazkia

2017an, programa eta zerbitzu guztietan, 386 lagun artatu ditugu modu zuzenean, honako taula honetan erakusten den bezala.

PROGRAMA	2016	2017
Harrerarako eta Hasierako Diagnostikorako Zerbitzua	95	210
Helduentzako Programa Anbulatorio Trinkoa	91	82
K. Terapeutikorako Prestatzeko eta Jarraipena egiteko Programa	15	18
Gazte Programa - Nerabeak	21	33
Gazte Programa - Familiak	41	43
GUZTIRA	263	386

11. TAULA 2017an Tuterako Gizakia Helburun artatutako lagunak, programen arabera.

Enpresak 6

Enpresekin Lankidentzan Aritzeko Zerbitua

Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioak zerbitzu bat eskaintzen die enpresei eta lantokiei lan-esparruan alkoholaren eta bestelako drogen kontsumoa prebenitzeko eta hari heltzeko. Lankidetzaz hori lankidetzaz hitzarmenen bidez burutzen da eta, horiei esker, enpresek modu eraginkorragoan esku hartzen ahal dute alkoholaren eta bestelako drogen kontsumoaren arloan, eta, bide batez, Gizarte Erantzukizun Korporatiboa gauzatzeko gizarte-ekintzako erakunde batekin batera.

Alkohola eta beste droga batzuk kontsumitzeak ondorio garrantzitsuak ditu lan-arloan, eta, askotan, langileen osasuna eta segurtasuna arriskuan jartzen ahal ditu, baita enpresaren produktibitatea ere (laneko istripuak, eritasun-bajak, zehapen-espeditenteak eta absentismoa, eta abar). Horregatik, behin eta berriz aipatzen da komenigarria dela enpresetan drogen kontsumoa prebenitzeko eta hari heltzeko planak sustatzea, ukitutako alderdi guztientzat onurak ekartzeko asmoz.

Mendekotasunaren tratamendua ikuspegitik, gure esperientziak erakutsi digu, halaber, ezen, arazo hori duten lagunek lanari eusteko edo lanera bueltatzeko itzaropena izaten badute eta enpresaren babesa ere badute, esku-hartzearen pronostikoa nabarmen hobea dela.

Lan-arloko Esku-hartzeko Planak modu bateratu eta adostuan diseinatu behar dituzte enpresako ordezkariak eta langileen ordezkariak, teknikariak koordinatuta eta, ukitutako langileei dagokionez, konfidentzialtasuna eta borondatezkotasuna bermatuz.



EKINTZAK

Testuinguru horretan, Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioak honako ekintza hauek gauzatzeko aukera eskaintzen die enpresei eta erakundeei:

Aholkularitza

Alkoholaren eta drogen inguruan enpresa-akordio bat gauzatzeko eta hura lan-arriskuen prebentziorako planean sartzeko aholkularitza.

Jarduerak

Prebentzioa eta sentsibilizazioa sustatzeko ekintzak egitea.

Prestakuntza

Enpresako eragile giltzarri batzuei prestakuntza ematea, besteak beste, honako gai hauetan:

- ★ Langileek drogak neurritz kanpo hartzearekin edo haiekiko mendekotasuna izatearekin lotutako arazoak hautematea.
- ★ Ukitutako pertsonekin nola lan egin, arazoak onartu eta tratamendua egiteko motibazioa izan dezaten.
- ★ Espezializatutako baliabideak erabiltzera bideratzea, tratamenduarekiko kolaborazioa, eta, hala badagokio, ukitutako pertsona bere lanpostuan berriz hasteko sustatze-neurriak.

Tratamendua

Ukitutako langilea bere abusu- edo mendekotasun-arazorako tratamenduan berehala hastea eta arazo horri modu trinkoan heltzea.

2017KO JARDUERAK

2017an, informazio-, orientazio- eta aholkularitza-topaketak izan ditugu 2 tokiko erakunderekin, 5 enpresarekin, irabazi asmorik gabeko 2 erakunde pribaturekin eta sindikatu batekin. Horrez gain, gurekin hitzarmena sinatua duten enpresetatik, 3 langileren kasuak bideratu zaizkigu Nafarroako Gizakia Helburu Fundaziora tratamendua har dezaten, eta bi akordio espezifikoren berrikusketetan parte hartu dugu toki-erakunde banatan, lanean drogen kontsumoa prebenitu eta hari heltzeari dagokionez. Halaber, sindikatu bati aholkua eman diogu enpresa-hitzarmenetan drogen kontsumoaren prebentzioarekin eta harekiko esku-hartzearekin lotutako klausulak negoziatzeari dagokionez.

Gure esperientzia unibertsitate-master batean agertu ahal izan dugu: **"Masterra: Mendekotasunak, ikuspegi biopsikosoziala."** Ovideko Unibertsitatearen titulu propioa da, Gizakia Helburu Elkarte (estatu osokoa) elkarlanean eskainia..

informazioa, orientazioa eta aholkularitza

- 2 Toki-erakunde
- 5 Enpresa
- 2 Erakunde pribatu
- 2 Sindikatu

tratamendura bideratzea

- 3 pertsona

Ikerkuntza 7

Ikerkuntza, irakaskuntza eta prestakuntza



IKERKUNTZA-PROIEKTUAK

2 017an, aurreko urteetan abiatutako ikerkuntza-proiektuekin segitu dugu, ezarritako urte anitzeko finantzazio-planaren arabera.

Horrez gain, "**Gizakia Helburu Behatokia**"n parte hartzen dugu, mendekotasunekin arazoak dituzten eta tratamenduan dauden lagunen ezaugarriei buruzko lantaldean, eta, horren barruan, gure I+G departamentuaren

bidez, 2016ko urteko txostenaren idazketan hartu dugu parte.

Azkenik, 2017an, MEDINSOLA Proiektuaren talde eragilean parte hartzen hasi gara; mendekotasunak dituzten pertsonak gizartean eta lan-arloan integratzeko **INSOLA** Programaren Eragina neurtzeko asmoa du proiektuak eta Europako Gizarte Funtsak finantzatzen du.

URTEA	IKERKETA	UNIBERTSITATEA	FINANTZATZAILEA
2016-2020	Tratu txarrak jasan dituzten eta mendekotasuna duten pazienteentzako esku-hartze programa baten eraginkortasuna	Nafarroako Unibertsitate Publikoa	Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa
2017-2019	Mendekotasuna, Nortasuna eta Frustrazioarekiko Tolerantzia: Gizakia Helbururi atxikitako subjektuen ikerketa neuropsikologikoa	Nafarroako Unibertsitatea	Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa

12. TAULA Proyectos de investigación impulsados en 2017

ARGITALPEN ZIENTIFIKOAK

- * **Therapeutic progression in abused women following a drug-addiction treatment program.** Fernández-Montalvo, J., López-Goñi, J.J., Arteaga, A., Cacho, R. eta Azanza, P. (2017). Journal of Interpersonal Violence, 32(13), 2046-2056. Doi: 10.1177/0886260515591980.
- * **Educational styles, parenting stressors and psychopathological symptoms in parents of adolescents with high-risk behaviours.** Iturain, S.; López-Goñi, J.J.; Arteaga, A.; Deusto, C.; Fernández-Montalvo, J. (2017). Drugs: Education, Prevention and Policy. Doi: 10.1080/09687637.2016.1191062
- * **Searching objective criteria for patient assignment in addiction treatment.** López-Goñi, J.J., Fernández-Montalvo, J., Arteaga, A. eta Esarte, S. (2017). Journal of Substance Abuse Treatment. Doi: 10.1016/j.jsat.2017.02.014.
- * **Gender differences in treatment progress of drug-addicted patients.** Fernández-Montalvo, J.; López-Goñi, J.J.; Azanza, P.; Arteaga, A.; Cacho, R. (2017). Women Health. Doi: 10.1080/03630242.2016.1160967.

Ikastaroetan, jardunaldietan eta kongresuetan izandako parte-hartzea

- * **Aristu, M.** Haurrei tratu ona ematea sustatzeko I. Jardunaldiko Batzorde antolatzaile eta zientifikoa: "Haurtzaroaren gaineko begiradak zabalduz". Nafarroako Gobernua. Iruñea, 2017ko azaroaren 10a eta 11.
- * **Aristu, M.** Egoera berezietan dauden familiekin esku hartzeari buruzko Masterreko Mintegia. NUP. Iruñea, 2017ko martxoaren 17a.
- * **González, F., Mendigutxia, G., López-Goñi, J.J.** Suspertuk gomendatutako prebentzio-programan parte hatzen duten nerabeen izaeraren aldagaien eboluzioa. EuroTC-2017 Nazioarteko Konferentzia. Mendekotasunak egoki artatzeko jardunbide egokiak. Toledo, 2017ko azaroaren 2tik 4ra
- * **Iturain, S.** Arrisku-jokabideak dituzten nerabeentzat gomendatutako prebentzio-programa batean familietan egindako esku-hartzearen emaitzen ebaluazioa. Nerabeen arrisku-jokaerak prebenitzeko III. jardunaldiak. Iruñea, 2017ko azaroaren 17a.
- * **Iturain, S., Mendigutxia, G.** Arrisku-jokabideak dituzten nerabeentzat gomendatutako prebentzio-programa batean familietan eta nerabeekin egindako esku-hartzearen emaitzen ebaluazioa. Nerabeen arrisku-jokaerak prebenitzeko III. Jardunaldiak. Nerabeak eta drogak: ebidentzian oinarritutako prebentzioa Pamplona, 17 noviembre 2017.
- * **Mendigutxia, G; López-Goñi, J.J.** Nerabezaroko arrisku-jokabideak eta izaeraren dimentsioak. Psikologia, osasun eta hezkuntzari buruzko I. Nazioarteko Biltzarra. Oviedo, 2017ko azaroaren 8tik eta 11ra.
- * **Mendigutxia, G; López-Goñi, J.J.** Suspertuk gomendatutako prebentzio-programan artatutako nerabeen sintomatologia psikopatologikoaren eboluzioa. Psikologia, osasun eta hezkuntzari buruzko I. Nazioarteko Biltzarra. Oviedo, 2017ko azaroaren 8tik eta 11ra.
- * **Mendigutxia, G.** Gazteen errealitatea: nerabeek berek drogekin duten harremana nola hautematen duten aztertzen duen ikerketa bat. Nafarroako Unibertsitatean Udako XVII. Udako Ikastaroak 2017, NUP "Gazteek kontsumitu egiten dute? Zer, nola eta zergatik kontsumitzen dute?". Tafalla, 2017ko irailaren 22a.
- * **Moreno, G.** Kontsumo arazotsuei nola aurre egin eta beste arrisku-jokabide batzuk prebentzioaren ikuspegitik: gomendatutako prebentzioa. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Udako ikastaroak. Tafalla, 2017ko irailaren 21a eta 22a.
- * **Moreno, G.** Nola aurre hartu eta aurre egin alkoholaren eta/edo beste droga batzuen kontsumoari lan-arloan. Masterra: Mendekotasunak, ikuspegi biopsikosoziala. Oviedoko Unibertsitatea eta Gizakia Helburu Elkarte. Madrid, 2016ko azaroaren 25a.
- * **Moreno, G.** Drogen kontsumoarekin lotutako arazoak prebenitzea. Medikuntza Fakultatea. Nafarroako Unibertsitatea. Iruñea, 2017ko urriaren 4a.



DOKTOREGO TESIAK

2

017an, gure erakundeko bi langilek beren tesia irakurri dute eta, bi kasuetan ere, Bikain Cum Laude kalifikazioa lortu dute.

EGILEA	IZENBURUA	FECHA LECTURA
Iturain Jiménez de Bentrosa, Sonia	“Evaluación de la eficacia de la intervención con familias de jóvenes en situación de riesgo en un programa de prevención indicada” (Arrisku-egoeran dauden gazteen familiekin esku hartzeko prebentzio-programa baten ebaluazioa)	Septiembre de 2017
Esarte Eserverri, Sonia	“Evaluación de la eficacia de un programa de tratamiento ambulatorio del alcoholismo” (Alkoholismorako tratamendu ambulatorioaren programa baten eraginkortasunaren ebaluazioa)	Septiembre de 2017

13.TAULA Tesis doctorales leídas en 2017.



PRAKTIKAK EGITEKO PLAZA KOPURUA

Aurreko urteetan bezala, zenbait unibertsitaterekin eta prestakuntza-zentzorekin egin ditugu hitzarmenak, ikasleek gure programetan praktikak egin ditzaten; hala, profesional berriekin, gure

ezagutza partekatzen dugu eta gizarteari ere ekarpena egiten diogu espezialitate soziosanitarioetako ikasle gazteen prestakuntzan.

ZENTROA	TITULAZIOA	PLAZAK	OR-DUAK	PROGRAMA
Euskal Herriko Unibertsitatea	Psikologia Gradua	1	200	Aldatu
Euskal Herriko Unibertsitatea	Gizarte-Hezkuntzako Gradua	1	190	K. Terapeutikoa
ISEP	Psikologia Klinikoa Masterra	1	105	Aldatu
Hezitzaile-Eskola	Gizarte-Integratioko Goi-teknikaria	1	540	Suspertu
Zaragozako Unibertsitatea	Psikologiako Gradua	1	200	K. Terapeutikoa
Salamancako Unib. Portifikala	Psikologiako Gradua	2	220	Suspertu / Aldatu

14. TAULA Plazas en prácticas 2016/2017

CENTRO	TITULACIÓN	PLAZAS	HORAS	PROGRAMA
Salamancako Unibertsitatea	Psikologiako Gradua	1	140	K. Terapeutikoa
Euskal Herriko Unibertsitatea	Psikologiako Gradua	1	200	Aldatu
Salamancako Unib. Portifikala	Psikologiako Gradua	1	220	Suspertu
Valentziako Unibertsitatea	Mendekotasunak Masterra	1	900	Denak
Nafarroako Unib. Publikoa	Gizarte Lagintzako Gradua	1	200	Suspertu

15. TAULA Plazas en prácticas 2017/2018

Datuak 8

Datu ekonomikoak eta diru-laguntzak

Urtero bezala, gure kontuen kanpo-ikuskapen ekonomikoa egin dugu, eta, 2017an ere, BDO Quota Auditores SL-k aldeko iritzia eman du. Txosten osoa eskuragarri dago gure webgunean.

GASTU MOTA	EUROS
KANPO-ZERBITZUAK	404.681,33
LANGILERIA GASTUAK	1.328.667,84
AMORTIZAZIOAK	12.040,18
PRESTAKUNTZA	6.999,58
Gastuak, guztira	1.752.388,93
SARRERAK	EUROS
NAFARROAKO GOBERNUA	
NAFARROAKO OSASUN ZERBITZUA	858.558,89
FORU PLANA	33.354
GIZARTE GAIAK	12.500
BOLUNTARIOTZA	3.971,08
POISES PROIEKTUA	30.796,84
INSOLA PROIEKTUA	21.000,96
IRUÑEKO UDALA	10.487
LABORAL KUTXA	5.000
RURAL KUTXA	20.000
LA CAIXA GIZARTE EKINTZA	20.000
CAN/CAIXA FUNDAZIOA	50.000
ERABILTZAILEAK	364.147,05
CARITAS ALOKAIUENGATIK	120.200,40
BANAKAKOEN EMAITZAK	58.893,75
EMAITZAK GAUZATAN	19.189
BESTE UDAL BATZUK	4.714,29
PREBENTZIO LANTEGIAK	13.395,73
BESTELAKOAK	93.056,82
Sarrerak, guztira	1.739.265,81
Emaitza	- 13.123,12

ERAKUNDE ETA ENPRESA LAGUNTZAILEAK

Nafarroako
Gobernua  Gobierno
de Navarra

 Ayuntamiento de
Pamplona
Iruñeko Udala

 Ayuntamiento de Tudela

 AYUNTAMIENTO BERRITOÑO
BERRITOÑO UDALA

 AYUNTAMIENTO
del VALLE de EGÜÉS
EGUESIBARKO
UDALA

 "laCaixa"

 FUNDACIÓN
CAJANAVARRA

 Caritas
Diocesana de
Pamplona-Tudela

 CAJA RURAL
DE NAVARRA

 NAVARRA
FUNDACIONES
BARGO DE ALIMENTOS

 LABORAL
kutxa

 ARPA
ABOGADOS - CONSULTORES

 ian
GRUPO ALIMENTARIO

 PIQUER
asesoría laboral

 IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOKAN
AGUI, A TU LADO

 anel

 MAIER
NAVARRA

 FAGOR
Fagor Ederlan Tafalla

 Mutua
navarra
MUTUA COLABORADORA
CON LA SEGURIDAD SOCIAL Nº21
summa
LABORAL

 Unión Europea
Fondo Social Europeo
"El FSE invierte en tu futuro"

Nafarroako Osasun Zerbitzua/Osasunbidea
Gizarte Eskubideetako Lehendakariordetza
Hezkuntza Departamentua

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan
Osasunaren Institutua

Nafarroako Enplegu Zerbitzua -
Nafar Lansare

Burlatako Udala

Arangurengo Udala

Uharteko Udala

Los Arcoseko Udala

Orkoiengo Udala

Izarbeibarreko Mankomunitatea

Erljioso-kongregazioak:

- Salestarren IO
- Karitatearen Mesedetakoak
- Bordeleko Familia Santua

For Kristal-denda

Arrasate Okindegia

Josetxo Charral Frutak eta Barazkiak

Logisva Power SL

Lacturale

Postres tradicionales Ulzama

Nafarroako Gizaki Helburu Fundazioak
honako hauetan hartzen du parte:

 ASOCIACIÓN
PROYECTO HOMBRE

Honako honen aitortpena jaso du:

 EMPRESA
RESPONSABLE
EN CONCILIACIÓN
re
concilia

 EXCELENCIA
NAVARRA
300 +

Fitxa teknikoa 9

Gure proiektuan parte hartu nahi duzu?



LAGUNDU

Nahi izanez gero, ekarpen solidario bat egiten ahal duzu, bazkide eginez edo aldian behineko ekarpen bat eginez, eta, hala, gure proiektuaren finantzazioan laguntzen ahal duzu.

PARTE HARTU

Zure denbora eta zure lana izaten ahal da zure ekarpenik garrantzitsuenak. Horregatik, gu ezagutzeko eta Nafarroako Gizakia Helburu Proiektuaren boluntario egiteko aukera ematen dizugu, gure jardueretako batean lagundu dezazun.



Bisitatu gure webgunea

proyectohombrenavarra.org



Deitu iezaguzu

948 291 865

EZAUGARRI OROKORRAK

Titularra

Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioa

Presidentea

José María Jiménez Nespereira Jn.

Programen Zuzendaria

Alfonso Arana Marquina Jn.

Lurraldea

Nafarroako Foru Komunitatea

LANGILEAK (31-12-2017)

Kontratuak

42

Boluntarioak

70

EGITURA ETA HORNIKUNTZA

Egoitza eta Komunitate Terapeutikoa

Iruñea Etorbidea, 59. 31200 Lizarra

Tel.: 948 55 29 86

Gizarte Egoitza eta Egoitza Nagusia

Zaragoza Etorbidea, 23. 31005 Iruñea

Tel.: 948 29 18 65

Fax: 948 291 740

info@proyectohombrenavarra.org

www.proyectohombrenavarra.org

- * Zerbitzu Nagusiak
- * ALDATU: Mendekotasunak
Artatzeko Zentroa
- * Hasierako diagnostikoak
- * Gizarteratzea
- * Harrera Zerbitzua (Komunitate Terapeutiko-
rako Prestatzea eta Motibatzea)
- * SUSPERTU Programa

Beti arte! Eskerrik asko eman duzu guztiarengatik!

*Bizirik guretzat eta gainerakoontzat
¡Vivos-as para nosotros-as y vivos-as para lxs demás!*

*Itñaki nahi zuen
bezala biziz hil da,
eta behartsuenarekin
lan eginez.
Mendirik
garaienera igo zara.*

*Itñaki ha fallecido
viviendo como quería
y trabajando con quien
más lo necesitaba.
Ha hecho cima en la
montaña más alta.*

*Con el corazón lleno de
dolor y agradecimiento
te despedimos.
¡Hasta siempre Itñaki!
¡Gracias por todo!*

*Bihotza oinazeak
harturik eta esker onez, agur.
Adiorik ez, Itñaki!
Eskerrik asko denagatik.*